

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|---|--|-------------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA | GARRAIO JARRAITUKO MAKINEN KONTROLA | Iraupena | 30 |
| | | Berariazkoa | |
| Kodea | UF0766 | | |
| Lanbide-arloa | ERAUZKETA-INDUSTRIAK | | |
| Lanbide-eremua | Meataritza | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Mineral, arroka eta beste materialen tratamendu eta ustiapena | Maila | 2 |
| Prestakuntza-modulua | Mineral, arroka eta bestelako materialen birrinketa eta ehoketa | Iraupena | 160 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Mineralen birrinketa-, ehoketa- eta mikronizazio-eragiketak | Iraupena | 80 |
| | Mineralen tratamenduaren eta ustiapenaren arrisku-prebentzioa eta ingurumen-kudeaketa (zeharkakoa) | | 50 |

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0422_2 MINERAL, ARROKA ETA BESTELAKO MATERIALAK BIRRINTZEA, EHOTZEA ETA MIKRONIZATZEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Garraio jarraituko zirkuituak kontrolatzea prozesuaren fluxu-diagramaren arabera.

E1.1 Uhal garraiatzaile baten osagai nagusiak deskribatzea.

E1.2 Uhal garraiatzaile baten babes-gailuak desberdintzea, bereziki eragintza- eta itzulera-danborretan.

E1.3 Larrialdi-geldialdiko sistema egikaritzea uhalean zehar instalatutako kableari tiratzearen bitartez.

E1.4 Banda arrabolen edo estazio autozentratzaileen bitartez zentratzeko eragiketak deskribatzea.

E1.5 Bandaren lotuneak edo hala badagokio, konponketak egiteko prozedurak zerrendatzea.

E1.6 Garraiatzaileen elikagailuak prozesuaren funtzionamendu-parametroen arabera erregulatzea.

E1.7 Garraiatzaileen elementu desberdinen anomaliak detektatzea eta martxan jarri aurretik zuzentzea.

E1.8 Zirkuitu irekiko edo zirkuitu itxiko birrinketako eta ehoketako bandazko garraiatzaileen edo garraiatzaile pneumatikoen instalazioak deskribatzea.

E1.9 Uhal garraiatzaileen mantentze-eragiketak egitea lanaldiaren hasieran edo amaieran, uhala geldituta eta ondoko argibideei jarraikiz:

- Erreduktoreetan, enbrage hidraulikoetan eta beste mekanismo batzuetan olioak aldatzea eta bestelako mantentze-eragiketak egitea mantentze-lanetako eskuliburuan adierazitakoari jarraikiz.
- Baskula kontrastatzea.
- Arrabol akasdunak aldatzea.
- Karga-gidak aldatzea.
- Errasketak aldatzea.
- Banda, arrabolak eta danborrak garbitzea eta marruskadurak kentzea.

Edukiak:

1. Garraio jarraituko makinetako ekipamenduak eta instalazioak.

- Garraiatzaile jarraituak:
 - Motak.
 - Ezaugarriak.
 - Osagai nagusiak.
- Uhalen eta garraiatzaileen funtzionamendu-printzipioa:
 - Organo mekanikoak.
 - Organo elektrikoak.
 - Organo oleohidraulikoak.
 - Organo pneumatikoak.
- Uhal eta garraiatzaile pneumatikoen lehen mailako mantentze-lanak:
 - Eskuliburuak.
 - Erremintak eta lanabesak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Mineral, arroka eta beste materialen tratamendu eta ustiapena